

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tere Irazola Etxebarri

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia
(1926-2019)*

Aurkibidea



Biografia



San Migel auzoko Antikara baserrian jaio zen. Gurasoak ere auzo berekoak zituen: aita bere jaiotetxekoa eta ama Oruekoa (gerran desagertua), pasionisten komentua eraiki zuten gero bertan. 4 neba-arrebako familian bera izan zen alaba bakarra. Gerrara arte ibili zen auzoko eskolan eta euskaraz jaso zituen ezagutzak. Gerratean Bilbora joan ziren ebakuatuta, Irala kalera, eta Bilboko bonbardaketa Pagasarritik ikusi zuen. Bitarte horretan, aita Karmeloko kartzelan izan zuen. Bere etxeko hainbat solo autopista egiterakoan kendu zizkieten eta bertako komentua egiten zebiltzan beharginentzako lotarako lekua eta taberna izan zuen, baina hori ere autopista egiterakoan bota zuten. Oromiñoko (lurreta) senarra izan zuen eta Urritxera ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituen. Beti aritu zen baserriko lanetan, eta Bilboko plazara ere bendejearekin joandakoa da.

Zintak

AMO-010

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-02
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

AMO-011

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-02
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Orue baserria; taberna-ostatua izan zuen

- **Erref:** AMO-010/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Pasiotarren komentua dagoen tokian, Orue izeneko etxea zegoen, bere amaren jaiotetxea; eta, gerra denboran, apurtu egin zuten. Gerraostean, familia luzaroan egon zen txabola batean. Komentua egiten ziharduten langile giputzak Tereren taberna-ostatuan zeuden ostatu hartuta. Autobideak kendu zion taberna Tereri.</p>

2. Andrak etxean eta gizonak tabernan

- **Erref:** AMO-010/006
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:06:32. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Orduko denboretan andreak eta umeak ez ziren tabernetara joaten. Meza ostean gizonak tabernara joaten ziren eta eurak etxera. Umeek ez zieten gurasoei erantzuten gaur egun egiten duten moduan.</p>

3. Domeketan meza eta erromeria

- **Erref:** AMO-010/008
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Meza entzun eta etxera joaten ziren. Igande arratsaldeetan San Antonioko erromeriara joateko ohitura zuten. Aremarixako (abemariatako) kanpaiak noiz joko zuten zain egoten ziren.</p>

4. Jolasak

- **Erref:** AMO-010/009
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskola sasoian sokarekin eta tabatan jolasten zuten. Tabaka zelan olgetan zuten azaltzen du.</p>

Transkripzioa

-Eta... Esan dozu mezataria ta erromerire, baiña olgeu be ingo zenduen.
-Noz olgeu, laztana? Gure denporan olgeu?
-Bai, eskola sasoi en.
-Bueno, eskola sasoi en bai. Eskola sasoi en, ba, edo sokiaz edo tabaki en edo, horixe, horixe zan olgetie, ingo zera barik, tabak eta zera. Tabak be danak ez gairuzen eukitten, e! ze danak ez zittuezen eukitten. Ta, ba ,hantxe, ordu en denporan. Oin e, oin eskolan be jueguek be asko dauz. Ordu en e, ordu en ez zan egoten ezer ta.
-Ta tabakaz zelan olgetan zan?
-Tabak ipini ta bota pelotie goittik behera ta pelotie botaten bezairun, beste eskuegaz buelta emon biher. Zera, hamen [zen] juego bat, ta bota barriro ta, benga! Arin ibilitte gora joaten bazan, igual denporie, baia, ostien, botaten bazairun, ba, ezer eitteko denporarik be ez, ta adios, se acabo. Bai, laztana, bai, bai, harek denporak. Oin ez dakit /eztait/ tabarik egon be dau en be ez dakit, ez dakit /eztait/. Oingo gazterixek... Oingoa diferentie da, baia, osea ke neure denporako, e! Ta lehenauko koittauk be [zeozar], ze konteu eukiko euri en, eukiko euri en /eukourien/.
-Ta soka n, zelan?
-Bai, bai.
-Zer kantetan zenduen edo?
-Bai, soka be bai. Baia sokie, soka zeri en ez, ordu en ez zan eukitten zeri sokarik eitteko erramalik ingo moduen. Horrek soka geroaukoak diez, geroaukoak diez; osea nire denporan be, baia eskolako denporakoak ez, gero, geroaukoak direz horrek.
-Ta mutilekaz batera?
-E?
-Mutilekaz olgetan zenduen?
-Guk? Ez dakit /eztait/ akordurik be mutilik egoten bazan be ordu en.

5. Aremarixako kanpai-hotsekin etxera

- **Erref:** AMO-010/010
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:12:04. **Bukatu:** 00:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Nobiorik izan ezean, aremarixakoak (abemariatakoak) jotzen zutenean etxera joan behar izaten zuten. Joaten ez baziren, hurrengo igandean zigorra jasoko zuten. Gazte asko zeuden San Migel auzoan; eskola ikaslez beteta egoten zen.</p>

6. San Migelgo eskola

- **Erref:** AMO-010/012
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten maistra batekin, doña Pascualarekin. Eskolara gustura joaten zen, baina itaurrean egin behar zenean etxean geratzen zen. Itaurrean egitea etxeko zigorretako bat izaten zen.</p>

7. Eskolan euskaraz; bandera egunero jarri

- **Erref:** AMO-010/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:12. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan berba euskaraz egiten zuten, baina liburuak erdaraz zeuden. Ikasle guztiek gela batean ikasten zuten. Eskolako ordutegiarekin batera, bandera egunero atera eta kentzen zuten. Gerraostean, Tere ez zen eskolara joan. Eskolan josten ere ikasi zuten apur bat.</p>

8. Bilboko bonbardaketa

- **Erref:** AMO-010/016
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:23:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gerra denboran Bilbon egon ziren, izeko baten etxean. Pagasarriara behiekin zihoazela bonbardaketa hasi zen. Aitak ganaduentzako belarra Mungiatik ekartzen zuen. Lau familia elkarregaz egon ziren.</p>

9. Aita kartzelan

- **Erref:** AMO-010/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:24:24. **Bukatu:** 00:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gerra Zornotzara ailegatu zenean, Bilbora ebakuatu zituzten. Aita preso hartu zuten Karmelon, Bilbon. Aita bisitatzeko sekula ez zuten eragozpenik izan, baina behin amamagaz zihoala salbokondutua eskatu zien.</p>

10. Goserik ez

- **Erref:** AMO-010/020
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gerran ebakuatuta joan zirenean Bilbo aldera ganaduak ere eraman zituzten,, Eurak Irala kalean egon ziren. Bi hilabete egon zituzten guztira kanpoan. Bueltan etxea okupatuta eta hustuta aurkitu zuten. Ahal zen bezala atera zuten aurrera bizimodua; hala ere ez zuten goserik pasatu. Sasoian sasoikoa jaten zuten ez gaur egun bezala.</p>

11. Porruak, baba eta esnea saltzen zuten

- **Erref:** AMO-010/021
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Solo handiak izan zituzten etxean, baina autobidea egoterakoan arlo handiak kendu zizkieten. Diru apur bat jaso arren gutxi izan zen. Bendejearekin ezkondu aurretik joaten zen plazara, betiere Bilboko san Anotngo plazara han izan baitzituzten bezeroa finkoak. Porrua eta baba zen gehien saltzen zutena. Esnea inguruan banatzen zuten. Esne-kantinak tranbiara eramaten zituen bere aita eta horrela banatzen zuten.</p>

12. Baserriko jatorduak

- **Erref:** AMO-010/023
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Euban eta San Migelen taberna-dena egoten zen eta bertan erosten zuten behar zutena. Jaten zuten arrain bakarra aita erreka harrapatutakoa zen. Bestela, zegoenarekin konformatu behar. Itsasoko arrainik ez zuten jaten, baina bakailaoa bai. Gabonetan zer jaten zuten.</p>

13. Behiak eta txerriak hiltzen

- **Erref:** AMO-010/024
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:41:05. **Bukatu:** 00:43:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Behiak ezkutuan hil behar baziren ere hiltzen zuten eta ez zuen goserik ezagutu. Txerria hil aurretik abisatu egin behar izan zen eskubideak ordaindu behar izaten baitziren. Matarifeak beti eramaten zuten zati bat.</p>

14. Arropak garbitzen

- **Erref:** AMO-010/026
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:46:17. **Bukatu:** 00:49:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Zelako arropak izan zituzten. Ez zuten askorik izaten baia aldatzeko beste bai. etxean ematen zioten xaboia arropen eta erreka joaten ziren garbitzen. Txinbo eta lagarto xaboiak erabiltzen zituzten. Gizonen lantegiko arropak zikin asko zutenez, irakiten jartzen zituzten. Izarak kirruzkoak izaten ziren.</p>

15. Antzinako sehaskak eta pixoihalak

- **Erref:** AMO-010/028
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:52:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Sehaskak egurrezkoak izaten ziren, azpian ol bat izaten zuten eragin ahal izateko. Umeen pixoihalak zelako ziren azaltzen du. Pixoihal horiek paxarekin lotzen ziren gerrian, eror ez zitezen.</p>

16. Hilerokoari eta umeen jatorriari buruz ezin barbarik egin

- **Erref:** AMO-010/029
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:52:15. **Bukatu:** 00:55:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Emakumezkoak hilerokoarekin egoten zirenean, toallen antzeko oihal batzuk erabiltzen zituzten. Hilerokoa ez zen hitz egiteko gai arrunta, ezkutukoa baizik. Umeak ere zikoinek ekartzen zituztela esaten zen. Beraien auzokoen neskameari lehen aldiz hilerokoa etorri zitzaionean, neska hark ez zuen jakin hura zer zen ere ez.</p>

17. Hilerokoarekin egonez gero ezin hainbat lan egin

- **Erref:** AMO-010/030
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:55:56. **Bukatu:** 00:57:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Hilerokoa izaten zutenean baserriko hainbat lan ezin ziren egin: kipula txikitu, odolostak egin... "Eskuek garbi dekozuz?" galderak, ea hilerokoarekin zauden esan gura zuen.</p>

18. Ilargiaren eragina

- **Erref:** AMO-010/031
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:25. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Baserriko lan asko egin aurretik, kontuan hartzen zen ilargiaren egoera: ortuariak erein, txerria hil, gazta egin...</p>

19. Bere haurdunaldiak

- **Erref:** AMO-010/032
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Senarra Oromiñoko lurreta aldekoa izan zuen. Erromeria ezagutu zuten elkar. Ezkondu aurretik gelditu zen haurdun eta jendearen artean burrundara sortu zen. Adibidez, Bakixa auzoko erromerian dantzaz zebilela, beste bati entzun zion"Hi, Teresa enbarazada dauela guzurre dok e!".</p>

20. Bekatu txikiak eta handiak

- **Erref:** AMO-011/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:44. **Bukatu:** 00:02:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Fraileak apaizak baino gogorragoak zirela dio. Konfesatzera joaten zirenean, apaizak galdetu egiten zien bekatu handia edo txikia egin zuten. Bekatu txikia zer izaten zen azaltzen du. Hamabost egunean behin joaten ziren konfesatzera.

21. San Migeletako kantaren zati bat

- **Erref:** AMO-011/004
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Jaiak San Migelak izaten ziren. Kantaren zati bat abesten du.

22. San Migel jaietan meza, dantzarako musika eta gonbidautzak

- **Erref:** AMO-011/005
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

San Migel eta San Migeltxu egunetan jai egiten zuten. Gonbidautzak egiten zituzten. Dabonlintxeroak aurrekua jotzen zuen meza ostean. Arratsaldean soinu-jolea izaten zuten dantzarako. Senarra ezpata-dantzaria izan zen lurretan.

23. Aratosteetan tostadak eta txitxiburduntzia

- **Erref:** AMO-011/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Aratosteetan tostadak jaten zituzten, ogiarekin edo ahiarekin egindakoak. Txitxiburduntzia egiten zuten, domekan.

24. Gabonetako kanta

- **Erref:** AMO-011/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

Gabonak ospatzen zituzten. Gabonetako "Gabon gabea" kanta abesten du. Errege bezperan zapata ipintzen zuten, ondo garbituta. Goxoren bat jasotzen zuten oparitan.

25. San Juanetan soroak bedeinkatzen

- **Erref:** AMO-011/011
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Sutondoan kontuak kontatzen zizkien amamak eta amak. Gariarekin eskutadak egiten zituzten San Juanetan, soroak bedeinkatzeko. Konjuroa esaten du. "San Juan de la porta" abestia abesten du.

26. "Neska zaharrak juaten dira" kanta

- **Erref:** AMO-011/013
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:22:24. **Bukatu:** 00:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Neska zaharrak juaten dira" kanta abesten du.

27. Hizkeran aldea lurretakoekin

- **Erref:** AMO-011/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:25:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Inguruko hizkeren inguruan berba egiten du. lurreta aldekoek "ue" esaten dute eta beraiek "oa".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com